

Argazkiak aldageletan



AINHOA AZURMENDI ECHEGARAY
KIROL AHOLKULARIA ETA
EHU-KO IRAKASLEA

Duela urtebete honela zioen ia 30.000 jarraitzaile dituen futboleko entrenatzaile baten txioak: “Kirol-talde baten aldagela, leku sakratua, non gertatzen den guztia bertan geratzen den... hau errespetatzen eta ulertzen ez duenak, ezingo du sekula talde bateko partaide izan”. Miresmenez betetako erantzunak jasotzen zituen bitartean, kirol arloko indarkeria sexualaren prebentzioan lan egiten dugun profesionalok larritasunez irakurri genituen hitz haiek.

Jakin badakigu aldagela ezinbestekoa dela taldea indartzeko, eta bertako elkarriketek, eztabaidek, ospakizunek, zoriontasun eta tristurek, funtzio garrantzitsua betetzen dutela taldearen izaeran. Horrez gain, gorputz aniztasunean, norbere eta besteen gorputzaren onarpenean, eta autokontzeptu eta autoestimuan ere eragiten duela esan genezake. Alabaina, aipatutako emozio eta balore positibo guztiak kontrako norabidean islatu daitezke diskriminazio edota indarkeria egoerak gertatzen badira aldageletan. Izan ere, *bullying*-a edo abusu sexuala gertatzeko aukerak handitu egiten dira espazio hauetan, bereziki adin txikikoez ari bagara.

Kirol arloko
indarkeria sexualaren
prebentzioan lan
egiten dugun
profesionalok
larritasunez irakurri
genituen hitz haiek

Bestalde, paradoxikoki, norbere pribatutasunaren mugak lausotu dituen erakusleho itxurako gizarte honetan, etengabe aldagela barruan elastikoa jantzita edo erantzita dituzten kirolarien argazkiak jartzen zaizkigu begien parean. Gehienetan gizonezkoak, eta askotan, maskulinitasuna harrota-sunez adierazten duten keinuez lagundu-

ta. Gainera, ez da zorrotz so egin behar konturatzeko apenas ikusten direla irudi horietan lodiak edo normatiboak ez diren gorputzak. Kirolari helduek, profesional eta eredu-garriek, kontziente izan beharko lukete horrelako jokabideak azaltzen dituztenean haur eta gazteak begira dituztela, eta gehienek portaera horiek onetsi eta kopiatu egingo dituztela kontziente izan gabe haien zat ekar dezaketen arriskua handia dela irudiarren kontrola erabat galtzen delako, eta abusuak pairatzeko probabilitatea handitzen delako.

Aldagela espazio intimoa da, eta ahal den heinean adingabekoen autonomia sustatzeko, harremanak indartzeko, eta gorputz eta identitateen aniztasuna onartzeko tresna izatea aldarrikatzen dut, beti ere, espazio seguru eta osasuntsua bada. Eta hori hala izan dadin pertsona helduok badugu erantzukizuna eta zeregina. Batetik, heziketa bidez eta neurri zehatzak ezarritik helduak aldagelan egon behar izan gabe bortizkeria gertatu ez dadin ziurtatzea; eta, bestetik, aldagela barruko argazkiak argitaratzearen zentzuaz kritikoki hausnartu eta erabaki arduratsuak hartzea. ●



#korrika
#KorrikaHamaikan
24 orduz etengabean



Aurkitu, ikusi, partekatu
DESKARGATU zure KILOMETROA
www.korrika22.hamaika.eus

